

## **Tolosako Bizikidetzaren foroak biktimei eta gizarteari helarazi nahi dion mezua**

**2014ko azaroak 10**

Gaur gogoan ditugu tolosan eta/edo tolosarrak ziren pertsonen bizitza eskubidea injustuki urratuta ikusi duten pertsona guztiak. Urte luzetan pairatu dugun indarkeriak gure herrian hausturak eta sufrimendu asko utzi ditu. Gizarte bezala lotsa sentitu dugu, ezinduak sentitu gara biktimak gure aurrean izanda gure elkartasuna eurei adierazteko eta horren aurrean autokritika egin beharra dugu. Orain arte, bakoitzak bere aldeko edo beregandik hurbilen egon diren biktimak soilik ikusi ditugulako.

Bizikidetzan eragiteko biktimen gaiari aurre egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu, euren izaera eta presentzia ikustaraztea ezinbestekoa da, eurek izan baidira indarkeria gehien eta modu zuzenean sufritu dutenak.

Horrexegatik, herritar bezela sufritu duten guztiei aurpegia jarri behar diegu, herritarren gehiengoarentzat ezezagunak diren testigantzak entzunak izan behar dira. Isilik egon diren pertsonen beldurrik gabe hitz egiteko aukera eman nahi diegu. Euren historiak entzunda, ezagututa gertatutakoaz jabetzea errazagoa izango zaigu. Gizarte bezela euren sufrimendua eta samina elkarrekin konpartitu eta sentitu nahi dugulako, biktimen inguruan ditugun ahuleziak eta gabeziak osatze aldera. Askok dira zauriak eta hausturak, hauek isten joan behar gara, baina itxi aurretik aurrez aurre begiratu eta sendatzen saiatu behar gara.

Sufrimena elkarrekin aitortuz eta biktima guztien injustizia aldarrikatuz bakarrik eraiki daitekeelako elkarbizitza. Gertatutakoaz bere osotasunean jabetu behar gara, gertatutakoaren memoria berreskuratu behar dugu. Elkarrekiko begirunea indartu behar dugu, bideak eraiki eta bakearen kultura zabaltzeko, behar dugu horren inguruko hausnarketa guneak sortuz. Denon artean egoera gaitzetsua lortu behar dugu, berriro errepika ez dadin.

Gaur hemen biktima guztiak denonak direla adierazi nahi dugu. Horretarako, biktima guztiak toki berdinean eta batera jarri nahi ditugu. Sufritu duten guztiei gure babesa eta eurek lehenak izan behar dutenaren aitortza era berean jasoko dezaten. Biktimei euren lana eta hautua eskertzeko, arriskuez oso kontziente baitziren. Gure errekonozimendua helarazi nahi diegu guztiei, nola bait sufritu duten guztia errekonozitu eta erreparatzeko helburuarekin.